



# INTERVIEW

## PHILIPPE ARAMENDI

“Nire bulegoko atea beti idekiak izango dira !”



### 5) Auzapeza ez bazina, zer lan egin nahi zenuke?

Beraz, ez dut abokatua erranen zeren eta , 25 urtez izan bainaiz, eta 2026an ez banaiz gehiago auzapez, ez dut berriz lan hori eginen.

Gaztetan bi pasio nituen: musika eta bateria, beraz musikari profesionala izatea erranen nuen. Baina orain artzain erranen dut.

### 6) Auzapeza izatea harro ote zira?

Bai, bai , bai auzapez izatea biziki harro naiz. Lehen erran dudan bezala, konplikatua da, ez da errex, baina aldi berean zoragabria da. Herriko etxera etortzen naizenean pozik etortzen naiz, gustura etortzen naiz, nahiz eta konplikatua izan. Beraz, harro nago.

### 7) Eskolan zinenean zure klasekideak ordezkatzan ote zenituen?

Eta ez, ez naiz inoiz izan ikasleen ordezkaria, oraindik ez nuen profil hori.

San Frantses xabier eskolan lehen urtean. Etxean hasi nintzen irakurtzen ikasten, baina lehen urtetik 5.era San Frantses Xabier eskolan eskolatua nintzen. Gero Dona Mari kolegioan, Saint Thomas d 'Aquin lizeoan, Baionako Zuzenbide Fakultatera eta gero Paueko abokatu eskolan ikaski nuen.

### 8) Betidanik urruñarra zira?

Bai, betidanik izan naiz urruñarra eta uste dut ez dela ni bezalako urruñar anitz. 56 urte ditut eta 56 urte daramatzat etxe berean bizitzen, horregatik diot jende ainitzek ez duela xantza hori ukan.

Lehen nere etxea aitatxik eraiki baserri bat zen. Handitu naizenean, baserria berritu genuen, eta ez genuen gehiago animaliarik. Etxea bi apartamentutan banatu dugu, ni etxearen zati batean bizi naiz, nere emaztearekin eta nere gurasoak beste aldean bizi dira.

### 9) Zein zailatsunei aurre egin behar diezu?

Zailena da nere taldea kudeatzea, hau da, gehiengoko beste hautetsiak, bakoitzak badu bere izaera eta nortasuna. Eta nik nere ondoan, guzien batasuna zaindu behar dut. Jendeak kudeatzea zailagoa da. Konplikatua da ere sentikorra naizelako.



# INTERVIEW

## PHILIPPE ARAMENDI

“Nire bulegoko atea beti idekiak izango dira !”



### 10) Gauzak aldatzen al dira auzapeza zirenean?

Bai, bizia aldatzen da hala ere Jadanik, eta irri eginaraziko dizuet baina, besta guttiago egiten dut, nere irudia zaindu behar baitut.

Bizia ere aldatzen da, nere emazteak eta alabak etxean guttiago ikusten nautelako, arratsaldeetan berandu sartzen naiz eta goizean goiz joaten naiz.

### 11) Hainbeste ardura ukatea zaila ote da ?

Bai, ez da errexia, sorbalda gainean eramaten dugun pisua, astuna izaten ahal da. Zerbait gaizki ateratzen bada, nere ardura da. Baina ez da kexatu behar, nik hautatu baitut. Ez dut ongi lo egiten gauero.

### 12) Ba ote dira abantailak auzapeza zirelarik?

Bai, jendearen esker ona adibidez. Ez dakit abantaila den, baina biziki hunkitua naiz.

### 13) Zein da gehien maite duzun platera o ? Zuk sukaldatzen duzuna ?

Sinplea da, nik gasnazko taloak maite ditut, arno baso batekin. Gero, bada bertze plater bat gustukoa dudana baina ez dut nik sukaldatzen, hau da, sagarnotegiko menua : omeleta, txuleta eta gasna.

### 14) Zoin da gehien maite duzun musika? Eta liburua ?

Nik taldea eta Niko Etxart biziki maite ditut. Eta libururi dagokionez ... ez dut ainitz irakurtzen, azkenik irakurri dudana liburua, eta egia, da biziki untsa zela, « Kilomètre zéro » deitzen da.

